



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

MARTXOAK 8: EMAKUMEEN* EGUNA MOZIOA

Martxoaren 8an, Emakumeon Egunean, orain arte lortutakoa ospatzeko egunetik haratago, honaino iristeko borroka egin duen Mugimendu Feminista eta norbanakoen lana aitortzeko eta aurrera begirako erronkak mahai gaineratzeko eguna da. Ezinbestekoa da eskubideen aldeko borrokan, mugimenduaren antolakuntzak eta interpelazioetatik, jendarte guztia inplikatzeko izan duen eraginaz mintzatzea. Zentzu honetan, instituzio honi dagokion ardura hartzetik aurkezten dugu adierazpen hau.

Esan dugu dagoeneko, pandemiak agerian utzi duela feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaugarria eta dependientea da. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan.

Genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealitate ukaezina da: emakumeek beren gain hartzen jarraitzen dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; eta azken honek gainera, prekarizazio norabidea nabarmen hartu du.

Krisi egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Euskal Herrian, gure eskumen-esparru mugatuan, argi daukagu gure lurraldeetan gure bizitzaren burujabe ez garen bitartean ezin izango ditugula beharrezko aldaketa guztiak bultzatu: hala ere, badaude aukerak bide hori marrazten joateko, sisteman pitzadurak irekitzeko, eta, hain zuzen ere, tokikoa da eremu gokiarena.

Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanez eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

Horregatik guztiagatik, Zaldibiako Udalak honako hau erabaki du:

- Politika feministetan sakontzeko konpromiso irmoa du Zaldibiako Udalak eta horretarako baliabideak jartzeko lanean jarraituko dugu, Zaldibiako herrian ikuspegi feminista txertatzen jarraitzeko helburuarekin.
- Zaldibiako zaintza lanen zein zaintzaileen egoera aztertzeko konpromisoa hartzen dugu, horretarako eskuhartze plana martxan jarritz. Zaintzaileen ahalduntze kolektiboa sustatzea eta herrian zaintza lanei balio sozial eta politikoa ematea izango dugu xede, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.
- Herriko mugimendu feministarekin eta bestelako eragileekin elkarlanean jarraituko dugu eta Emakume*, nerabe eta neske*n ahalduntze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatuko ditugu.

Martxoaren 8ko atari honetan, dei egiten diegu herritarrei mobilizazioetan parte har dezaten. Bereziki aipatu nahi ditugu:

MARTXOAK 5, larunbata:

- 10:30ean, plazan, TTIPI-TTAPA MOREA ibilaldi feminista.
- 13:00etan, plazan, EKITALDIA eta ARGAZKIA.
- Iluntzean, POTELO MUSIKATUA.

MARTXOAK 6, igandea:

- 18:00etan MAITASUNAREN MATERIA(LAK) antzerkia Antzokian.

MARTXOAK 8, asteartea:

- 12:00etan, plazan, ELKARRETARATZEA Udalak deituta.
- 18:30ean, plazatik abiatuta, KOTXE KARABANA Ordiziara.
- 19:00etan Ordiziako plazan elkartu eta MANIFESTAZIOA herrian zehar. Ondoren, EKITALDIA Barrena parkean.
- 21:00etan AFARI FEMINISTA Joxepanen.

2022ko martxoaren 3an, Zaldibiako Udaleko osoko bilkuran onartua.